

MOTZEAN

Oibarko ikastetxe publikoan D eredia ezarriko dutela iragarri du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak. Hilabeteetako protesten ondoren, euskarazko lerroa ezartzea lortu dute.

Salbatore Mitxelena ikastolak 140.000 euro ordaindu beharko ditu, Eusko Jaurlaritzak Haur Hezkuntzarako ezarri dion matrikulazio muga gainditzeagatik, baina 8 ikasleak mantenduko ditu, negoziazioen ondorio. Hezkuntza Sailaren erabakiak eta jarrerak salatu ditu ikastolak.

2.000 lagun inguruk Europaren migrazio politika "hiltzaileak" salatu dituzte, Irundik Hendaiarako martxan. Korrika igaro zenean hainbat migratzaile mugatu igarotzen laguntzeagatik auzipetutako ekintzaileei babesa eman diete.

GKSk deituta, manifestazio jendetsuak egin dituzte Bilbon eta Iruñean, "faxismoaren kontrako euste-horma eraikitzeke asmoz". GKS eskua luzatu die langile-klaseko kolektiboari, "faxismoari aurre egiteko".

"Independentziara egunak" antolatu ditu Ernaik Hego Euskal Herriko 75 udalerritan. Apirilaren 20an, Aberri Egunarekin batera, Berriozarren egingo duten Gazteon Eskutik jardunaldia izango dute azken geltoki.

Ia urtebeteko erbestealdiaren ondoren, desplazatutako milaka palestinar Gazara itzultzen ari dira, su-etenarengatik ireki den Netzarim korridorea baliatuta.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

